

III! 11f1111
EiisaraiLE *smmm mm*

Margo dolorezko kuadruan betikotzeko asmoz eskuratu dut idazluma.

Geldirik dela dibujatzen hasi naiz Imanolen lehen planoan. Baina ezin dio nire idazlumak jarraitu. Mugimenduan existitzen da gizonikara hau. Aurpegiera tenteko. Aho mailukariaren ekinari ritmoa etenez, atzamarrezko orrazia pasatzen du ile tartetik. Abailduta pintatu zapak, puntaz dira. Aldapazko sudurretik labandu diren betaurrekoak, igo ditu begi mailara. Baleki ez natzaioia entzuten ari! Egia esan, berak ere, nire galderak gora-behera, bakarreko berriketari ekiten dio. Apalategitiko Llandoren hiztegiak eskuineko Dukadosa jo du. Hauts errea, fraka berdesketara aurretik, zutik da Imanol. Barka, Goiko! Batzuk parka esan behar litzatekeela, baina... Ileen koloreko kearen gurpil tartean mahi gaineko telefonoa entzun dugu. Bai! Zer? Ez, ez daukat astirik! Agur. Zer ordu, Goiko? Ene! Ba dakizu, frailon bazkalordua! Ondo daukat jaka? Ba dakizu, beste batena da eta... Atera begira daude ene begiak, boligrafoa orritik at, kuadrutik kanpora joan zait Imanol, ezin sujetaturik bere indarrak. Ekainean zen hau, Euskaltzaindiko leiho gabeko gelan.

Xmanolen azken hamar urteak

Karmelgo 1979-3 alean *Mikeli, agur* artikulua idazteko aukera eduki nuenean, honela nioen: «Mikel joan eta ni hemen. Nork pentsa? esaten zidan Imanolek». 1987eko irail honetan bera joan da. Bai atsedena, Iralabarriko 4-31-19-36 telefonoak hartu duena! Zer dei eta kontsulta ez ote diot egin azken hamaika urteotan! *J or din txikerra* kalean *Anaitasuna* bizi zela hasi nintzen Imanol Berriatua abadea ezagutzen. Arestirekin batera. 1970/1.urtean arduradun nintzela eman zuen hitzaldi bat edo beste Alfabetatze kanpainan. 1972.urtean, *Euskalduntzen I* asmatzen hasi ginenean, Imanol izan genuen euskararen zuzentzaile, Xabier Kintanarekin batera. Urte berean hasi zen nabarmentzen Jose Ramon Etxebarria, Juanjo Zearreta, Ricardo Badiola, Sabino Egileor eta neu ere tartean genbiltzala.

Kontutan hartu behar da Santutxuko taldea, Euskarazaleak eta geutik aparte, Bilbon taldeak urri zirela. Bizkaian Imanolegandik eta inguru honetan, Pefia Gran Vian, heltzen ziren ikasleengana Euskaltzaindiaren euskara baturako bideak, *Gau-eskola*, *Alfabetatze Kanpaina*, *Euskalduntzen* metodoaren medioz.

Azken urteotako euskararen normalizatzeko prozesuan, aztertu beharko da Imanolek, *Anaitasunatik* Frantziskotarren euskal-habiatik, Euskaltzainditik eta talde honen bidez izan duen garrantzia. Garaiaren aztarrenik adierazkorrena *Euskalduntzen* /-en azalean daukagu. Fotografian, klase ematen ari den irakasle gazte agiri da. Anekdoten munduan, fotografian daukan alkondara ere aipa dezadan. Imanol, fraile zintzoari dagokion eran, beltzez jantzia zegoen. Argazkilariak kolore beltza ez zela egokia esatean, ondoko gelera joan, soinekoak kendu eta Rikardoren alkondara zuriz fotografiatu zen. Irudi hori 110.000 mila ale ingurutan sakabanatu zen Euskal Herrian zehar. Imanol famatua, ezaguna zen.

1972.urteetik aurrera neure lagun minen artean kontatzeko zoria izan dut ezkondu ninduen eguneko fotografiek gogoratzen didaten legez. Zer afari, bazkari, ez ote dugu gure Imanolegaz egin! IXila bezain printzipala zen neska-mutil arteko

jatorduetan. Inoiz koparen bat neurritz kanpo edan araztea ere parkatuko digu.

Euskaldungoarentzat, baina, Imanolen lanik interesgarrien eta pertsonalena, azken 10 urteotako bigarren arokoa izan da, *Oinarrizko Euskaraz* eta *Hitz Egin* metodoaz eman duena. «Grain hogeita hamar urte Israelen bostehun mila lagunek bakarrik hitz egiten zuten hebraieraz. Ordutik hona bi milioi judu joan dira Israelera, bertan bizitzera. Etorkin hoiak berehalaxe ikasi dute hebraiera, eta gaur egunean hizkuntza hori besterik ez da entzuten lurralde osoan. Nola gertatu ahal izan da mirari linguistiko hori? Zer bide hartu dute juduek, hebraiera hain laster zabaltzeko eta ikas erazteko? Bideak bat baino gehiago izan dira. Baina, dudarik gabe, bide inportanteenetariko bat oinarrizko hebraieraren irakaskuntza izan da. Oinarrizko hebraiera nonnahi. Jarraibide ederra euskaldunontzat» dio Mailaka Idazteko Gidaliburuan.

Imanolek, Oinarrizko Euskararen, 1.-2.-3. mailako metodoak, lehen mailako hiru liburuxka, bigarreneko beste hiru eta hirugarreneko *Itsasoa eta Ni*, Bermeoko arrantzaleez arrantzan egin urteotako Anaitasunarako artikulua eta landu ditu. Horrez gainera, Amurizak EGINen idatzitako artikulua, mailaka egokituz laster argitaratzeko dira, *Oinak* (hau oraintsu atera da kalera) *Harriak* eta *Oinharriak*, hiru liburutan. *Mailaka Idazteko Gidaliburua* ere ez dugu ahazten. Zeregin latza gertatuko dela uste dut, Imanol moldatuz zebilen lekuan etxeko materialeak osotuz jarraitzea. Berak hain estilo pertsonalez eta zainduz burutzen zuen lanari, etenik gabe ekitea.

Anaitasunako aroa

Nik aurrez aurre aurkitu baino lehenagoko Imanol ezagutzeko, *Anaitasuna* aldizkarira jo behar da. Bertan kontatuko digu, Euskaltzaindiko izendatua izan zela: «Anaitasuna aldizkariaren irakurleok! Joan den agorrilean, Euskal Akademiak bere laguntzaitzat hartu nau» idazten du 1961.eko irailaren 15ean Bermeon. Horren arrazoia, Anaitasun egin lanagatik dela dio.

Aldizkari berean iragarriko digu, modu bateko bizkaiera-

tik baturako pausua: «Anaitasuna aldizkaritik eskerrak Kru-twig-i, Berak erakutsi zidan euskarak, bizi gura badu, eurrez eta beldur barik erbesteko hitzak hartu behar dituela, munduko hizkuntza guztien antzera. Ordurarte, ni euskara garbiaren esklabu nintzen Euskararen garbitasuna erdal usai-nezko hitzez ez lohitzearren, sarri askotan gauza on asko esan gabe uzten nuen, edo inork ulertzen ez zituen berbak erabiltzen nituen, edo oraindik txarrago, erdarara jotzen nuen».

Pozak eta penak

Anaitasunan bertan kontatzen dizkigu, aurrelari izatearen —Dakarrera arrantzaleen artean fedea zabaltze—, iniziatiba-dun izatearren —Anaitasuna sortu, Oinarrizko Euskara eraiki— pozak eta penak. «Egia esan, disgustu asko igaro behar izan dut, aldizkaritxo hontan erabiltzen dudana euskara dela eta. Batzuk traidoretzat hartu naute. Bizkaiko herri bat-tetan lehen 100 ale, orain bat ere ez. Zazpi urtetan, txitean-pitean eskutitz gogorrak... «Behinola Alfabetatzera berbaldia ematera joan eta entzun behar izan zituenak ere ez zeuzkan ahazteko: «Goiko ni ez noa gehiago» eta erdi negar.

Joan den urteko *Korrikan* bertan ezin minberatuago ge-ratu zen. Kantalojas-eko zubian geunden neure emaztea, ala-ba eta hirurok zenbait adiskidez, Imanolek han entregatu behar baitzion testigua *Marijaiari*. Pozez gainezka zetorren Imanolek «nori eman behar diot testigua» galdetu zuen. Ma-rijaia oso altua baita. «A mi hablame en castellano, joder» ez zion erantzun korrikakoak, ba! Osteko, hain estimatua zuen lagunarteko kafeaz ere ez genuen lasaitu. Egia esan behar bada, Korrika Otxarkuagatik itzuli arte itxaron eta Moyuan, urlri hori hamabosten artean inguratuz dilektikoki astindu genuela ere aipatu beharko da. Imanolen tristura ikusirik gutxiagotarako ere ez zen eta!

Imanolen eritziko izan ez diren euskaltzaleek, Imanol eus-kara batuaren aldekoa izan dela jakin behar dute: «Eskole-tako euskarak bat bakarra izan behar du, batua izan behar du. Antza denez, denok gaude konforme arazo hontan. Baina,

ez asmo hori praktikara eramateko moduan, (...) Egia esan, arazo honek presa dauka, presa haundia. Eskolari dagokionez zalantzarik gabe esan ahal dugu, euskara batuaren problema hainbat arinen ebatsi behar dugula».

Baina jakin behar dituzte, baita ere, bizkaiera baztertzeko zuela eta Imanol kritikatzeko zutenek, Imanolek Iparraldekoekin eta elkartuz gipuzkoareriaren kontra edukirikotako eztabaidak. Bizkaiera garbian berba egiten eban gugaz eta batuaz euskara ikasiekin nahiz beste euskalkietakoekin. Nik uste, baiezta daitekena dela, bizkaiera batuaren konfliktua euskaldun berri-zaharren arteko nekez konpontzea gainditzeko zuen bidea asmatu zuela Imanol Berriatuak: *Oinarrizko euskara*.

Imanol Berriatuaren traiektoria, gure herrian euskarak ekarri duen bidearen espilu bada, gutxiagotik gehiagora, gartzarotik heldutasunera etorri dela onar bageneza, mezu bat, mezu inportantea iradoki behar dugu beragandik: euskara erreza, errez idazten ikasi behar dugula, euskara mailakatua menperatuz, bai telebistan nahiz irratan. Idazle nahiz irakasleok mailaka idazten, mintzaten ikasi beharra daukagula. Ez zen Imanol, kasualitatez helduko, Oinarrizko Euskarara, berrogei urtetan ekin eta paiatu ondoren.

Abertzale jakintsua

Euskal Herriko Unibertsitateari ez zaio gogoratuko, agian, Imanoli omenaldia egitea tokatzen zaiola. Egia esateko, Imanolek, euskarak berak bezala, ez du lekurik eduki ikastetxe ofizialetan. Imanolen katedra kalekoa, arrantzaleen artekoa da.

Imanolen karakteristiketako euskaltzalea posibletzen duen herria, herri tristea da. Anaitasuna, mesedearen bultzadaz mantendu duen herria, euskararen batasunerako lana dohain egin zaion herria, Alfabetatze Kanpaina nahiz Euskalduntzen premia duena, XX.mendearen azken hogeikadan Oinarrizko Euskara tautzea inizatiba pribatuaren esku daukan herria, pobrea da herri bezala. Imanolek pobreei eskaini die bititza.

Imanol zuhurra, azkarra zen, leberra, beraren hitzak hartuz. Griegoa, latina, alemana, inglesa nahiz hebraiera ezagutzen dituen, eta euskara, euskararen euskalkiak, bizkaiera eta batua dotoreki eta aise erabiltzen dituen, haundi da, jakitun hornitua. Ez zela filologia ikasia? Ez! Hor dager herri deserakundetu honen medio gabezia.

Imanoli euskara bateraturako grina, kontzientzia nazionaletik zetorkion. «Heldu naiz Iriandara. (...) Hain zuzen ere Sierra Leonaren independentzia egunean heldu naiz. Free-towneko beltzak beren historiako egunik handiena ospatzen ari diren momentuan»dio Itsasoa eta Ni liburuan. Aita Villasantate, Krutwig, Imanolek... Bilbon egindako batzarrak aurretiko abertzaletasun militantea indartzeko izan ziren. Imanol abertzale sozialista zen. Baina «sozialismoaren aide mundu osoa dabil, euskararen aide, geu bakarrik» esaten zuen. Euskal munduan zabal, plural jokatu.

«Atzo, Goiko, goizeko hiruretan esnatu nintzen, burukomin itzelez. Aspirina bi hartu eta berriro sartu nintzen ohera». «*Hitz Egineko* hirugarren maila amaitzen dudanean banoa Israelera, nekatuta nago eta; otoitz eginez bakean egon gura dut». «Zuek Euskadiren aide gogor ekin, independentzaia, burruka..., baina hori nire denboretan ez da izango. Pozik nengoke ni, Gernika, Ondarroa, Bermeo eta inguru guzti horiek guztiz euskaldun ezagutuko banitu». Eguneroko Ian zintzo, zehatzetan sutsu agertzen zen Imanolek, ba zuen besterik ere bihotzean.

Egarriz joan zinen, Oinarrizko Euskararen eta Kristautasunaren iturrieta. Zu zeu asetu zara, guri edaria utzi diguzu. Zure lana ba daukagu, eskerrik asko. Zeu falta zaitugu.

/ . Luis Goikoetxea